

### OSOKO BILKURA 2022-10-27

**Organoa:** Udal Plenoa  
**Izaera:** Ohikoa  
**Deialdia:** Lehena  
**Eguna:** 2022-10-27  
**Ordua:** Hasiera 18:30etan.  
Bukaera 19:07etan.  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

#### **Bertaratuak:**

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

#### Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Karmelo Guridi Gallastegi jauna (EH Bildu)
  
- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna ( EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna  
Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

#### Ez dira bertaratu:

- .- Iñaki Olalde Altzelai jauna (Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)

#### AZTERGAIAK

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-07-21ko ohiko osoko bilkuraren akta, (7.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko udaleko brigadarako polibrazoa eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erosteko konpromiso-kreditua onartzea, 2024 urterako, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 27an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: ██████████ eskaera onartzea Olanan gunean kokatzeko, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 14an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: GFaren eta Udalaren arteko 2 lankidetzaren hitzarmenak onartzea, tarifa sistema bateratua (MUGI) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzaren aritzeko eta ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentraleri atxikitzeko, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 20an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 11an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko XV. Erakusleihen Lehiaketaren oinarrien onarpena, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 19an.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena, 2022-2023ko Enplegua sustatzeko toki

- ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 19an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Emakumien Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, berdintasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 11an.
  9. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Modernizazio Osagarria langile guztien nominatik ezabatzea onartzea, eta efektua izatea azaroko nominatik aurrera, pertsonal eta barne antolakuntza informazio-batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 18an.
  10. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta ASOCIACION DE AYUDA Y COLABORACIÓN CON EL PUEBLO SAHARAUÍ “JAIMA” elkartearen arteko hitzarmena eta dirulaguntza zuzena onartzea, partaidetza eta garapen komunitarioko informazio-batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 13an.
  11. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Larraña institutuaren arteko hitzarmena dirulaguntza zuzena eta ez izenduna onartzeko, helduen heziketa iraunkorreko jardun akademikorako, euskara-hezkuntza informazio-batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 18an.
  12. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Emaus fundazioaren arteko hitzarmena dirulaguntza zuzena eta ez izenduna onartzeko, Arantzazun gizarte mugimenduen eta unibertsitatearen arteko topaketarako, euskara-hezkuntza informazio-batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 18an.
  13. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Lanpostuen balorazio-eskuliburua aldatzea onartzea, “modernizazio” izeneko faktore bat gehituz eta berariazko osagarria kalkulatzeko erabiltzen den puntuaren balioa igoz, pertsonal eta barne antolakuntza informazio-batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 18an.
  14. Hala badagokio, presako gaiak.
  15. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
  16. 2022ko ekainaren 30ean osoko bilkurak onartutako erabakiaren aurka Aridos Aloña S.L.-k aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsioaren berri ematea.
  17. 2022ko uztailaren 16tik 2022ko urriaren 20ra bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 882 zenbakitik 1143 zenbakira.
  18. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (19., 20., 21., 22., 23., eta 24. saioak).
  19. Galderak eta eskaerak.

**BILERA:****1.- Onartzea, hala badagokio, 2022-07-21ko ohiko osoko bilkuraren akta, (7.2022).**

Alkateak galdetu du ea Udaltzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz. 2022ko uztailaren 21eko bilkura agiria irakurri eta aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, onartzea erabaki du.

**2.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko udaleko brigadarako polibrazoa eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erosteko konpromiso-kreditua onartzea, 2024 urterako, ogasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 27an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuten horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko udaleko brigadarako polibrazoa eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erosteko konpromiso-kreditua onartzea, 2024 urterako.

2022ko irailaren 27an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuten ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

**“3.- Konpromiso-kreditua-2024: Oñatiko udaleko brigadarako polibrazoa eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erostea**

*Oñatiko Udala honako kontratua izapidetzen ari da:*

- *Oñatiko udaleko brigadarako polibrazoa eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erostea.*
- *Esleipen-prezioa: 269.321,80 €*

Aipatu kontratua epe laburrean esleituta eta formalizatuta egongo litzateke, baina kamioaren jasotze-data 24 hilabetekoa da, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita. Beraz, 2024 urterako konpromiso-kreditu baten aurrean geundek.

21/2003 Foru Arauaren 22.art dioenez, Osoko Bilkurari dagokio konpromiso-kredituak onartzea, eta horrek dakar, aurrez, Ogasun Batzordeak irizpena eman beharra.

Ogasuna Batzordeak, aho batez, honako aldeko irizpena ematen du:

- Oñatiko udaleko brigadarako polibratua eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erosteko konpromiso-kreditua onartzea, zeina 2024ko ekitaldian gauzatuko den, esleipen-prezioa: 269.321,80 €koa izanik
- Irizpen hau Osoko Bilkurari igortzea.”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Oñatiko udaleko brigadarako polibratua eta karga-garabia izango dituen 6x4 kamioi bat erosteko konpromiso-kreditua onartzea, zeina 2024ko ekitaldian gauzatuko den, esleipen-prezioa: 269.321,80€koa izanik.

**BIGARRENA.**- Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: [REDACTED] eskaera onartzea Olalan gunean kokatzeko, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 14an.**

Adierazi da akats bat dagoela proposamenean interesdunaren abizenetan, egokia dena Gorka Egia Arregi da. Akatsa momentuan zuzentzen da. Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** [REDACTED] eskaera onartzea Olalan gunean kokatzeko.

3

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko sozioekonomia saileko teknikariak, 2022ko irailaren 14an egindako sozioekonomia eta turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“Expediente zk. 2022OLLA0001  
Expedientearen helbidea OLAKUA AUZOA 16, 3-D  
Udalerria OÑATI  
Gaia  
Interesduna: [REDACTED]  
Prozedura: OLLA Olalan gunean kokatzeko eskaera  
Hasiera-data: Sarrera erregistroa 2022 /003034

[REDACTED] hasitako prozedura aztertu da.

Aipatutako gaiari dagokionez, jarraian agertzen diren **gertakariak**:

**Lehenengoa.**- [REDACTED] Olalan coworking gunean kokatzeko eskaera egin du 2022ko irailaren 2an. Sarrera erregistro zenbakia 2022/3034

**Bigarrena.**- Aipatutako eskaera horri lotuta, 2022ko irailaren 12an 2022/3086 sarrera erregistro zenbakia duen eskaera aurkeztu du [REDACTED], 2022ko irailaren 2ko eskaeran aurkeztutako dokumentazioa osatuz.

**Hona hemen azaldutako gertakarien balorazioa:**

Aurkeztutako eskaera aztertu ostean eta «Bidaurreta Dorreko CoWork Gunearen Araudia» kontuan izanda,

**Lehenengoa.**- [REDACTED] betetzen dituela aipatutako araudiaren 3. artikuluan - “Zerbitzuaren onuradunak” zehaztutako baldintzak.

**Bigarrena.**- [REDACTED] aurkeztu dituela 5. artikuluan - “Eskabideak bideratzea” zehazten den dokumentazioa eta honen azterketa egin ostean, betetzen dituela Olalan coworking gunean kokatzeko baldintzak.

**Hirugarrena.**- [REDACTED] ordutegi osoan kokatuko da Olalan gunean urritik aurrera. Alokairu kontratua 2022ko azaroaren 1ean jarriko da indarrean eta 2 urteko iraupena izango du, 2024ko urriaren 31arte. Ondoren

eskatzaileak alokairu kontratua berritzeko aukera izango du, urtez urte, betiere itxaron zerrendarik sortzen ez bada. Kasu horretan kontratuaren mugaeguna heltzerakoan Haritz Sarriegi Etxeberriak bere espazioa uztera behartuta egongo da.

Laugarrena.- Onartutako Bideaurreta Dorreko CoWork Gunea erabiltzeko alokairu prezioen arabera, ordaindu beharreko hileroko kuota 80€+ BEZ izango da.

Gairi buruzko zehaztasunak Sozioekonomia eta Turismo batzordean eman ondoren, **erabaki proposamen** hau egiten zaio Osoko Bilkurari:

Lehenengoa.- ██████████ egindako eskaera onartzea goian azaldutako baldintzetan.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari eta Kontuhartzaitetza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Azaldutakoagatik, sozioekonomia eta turismo batzordearen oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- ██████████ egindako eskaera onartzea goian azaldutako baldintzetan.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari eta kontuhartzaitetza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea alokairu kontratua sinatzeko.

---

Gaia aztertuta, eta sozioekonomia eta turismo informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: GFaren eta Udalaren arteko 2 lankidetzaren hitzarmenak onartzea, tarifa sistema bateratua (MUGI) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzeko eta ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentrali atxikitzeko, zerbitzuak informazio batzordean diktaminatua 2022ko irailaren 20an.**

4

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du, behin aldatuta, -dagozkion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** GFaren eta Udalaren arteko 2 lankidetzaren hitzarmenak onartzea, tarifa sistema bateratua (MUGI) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzeko eta ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentrali atxikitzeko.

Xabier Berridi Iriarte, Azpiegitura teknikariak, 2022ko irailaren 20an egindako Zerbitzu batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“GFaren eta Udalaren arteko 2 lankidetzaren hitzarmen, tarifa sistema bateratua (MUGI) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzeko eta ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentrali atxikitzeko (2850)

GFako Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak proposamena bidali du 2 lankidetzaren hitzarmena sinatzeko:

1. *Tarifa sistema bateratua (MUGI sistema) eta mugikortasunaren arloko lankidetzaren hitzarmena:*
  - *Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren esparru bat ezartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñatiko Udalaren artean, Lurralde Historikoko herritarren mugikortasunerako funtsezko eskubidearen bermeari lagunduz, eta, horrez gain, helburu komunak lortzea, mugikortasun iraunkorreko jarraibide berri eta presazkoei erantzuteko, garraio publikoa hobetzeko eta bi erakundeen garraio publikoa kudeatzeko baliabideak optimizatzeko eta MUGI sistemaren bidez tarifa-integratzioko sistema bateratu baten ikuspegi partekatua indartzeko eta Gipuzkoako Lurralde Agintaritzan (ATTG) parte hartzeko ekintzak lantzen jarraitzea.*
  - *Era berean, hitzarmen honen xedea da, lehentasunez, Foru Aldundiak udalerriarantzako laguntza-lerro bat ezartzea, udalerrian kapilaritate garatzeko eta hobetzeko aukera ematen duen hiri-garraio publikoa bultzatzeko –tarifak integratzeko sistema bateratuaren barruan–,*

hiri-konektibitatea eta irisgarritasun unibertsala sustatuz, eta herritarren hiri-desplazamenduetan hurbiltasun-ereduak ezarriz udalerraren menpeko hiriko garraio publikoaren zerbitzuaren eraginkortasuna eta eragina hobetzeko jarduerak, garraio publiko horren defizitari aurre egiten lagunduz, eta udalerrriak garatutako Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planaren ekintzak eta programak garatzeko.

- Era berean, hitzarmenaren xedea da bi administrazioen arteko lankidetzak eta laguntza-mekanismoak ezartzea, udalerrian zerbitzua modu partekatuan kudeatzeko eta datuak elkarri eman eta trukatzeko, lurraldeko mugikortasun iraunkorreko planetako ekintzak eta programak egiten laguntzeko.
- Hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi hitzarmen hau sinatzen duten administrazioen eskumenari uko egiten zaionik, ez eta lagatzen denik ere, eta ez du ordezkatzeko erakunde horiek Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan duten lankidetzak.

### **Hiri-garraio publikorako laguntza**

Lurraldearen tarifa-integrazioaren esparruan, MUGI sistemaren bidez eta gizarte- eta lurralde-kohesioaren alde, Gipuzkoako Foru Aldundiak MUGI sistemari sartuta dauden lurraldeko udalerrien hiri-garraioari ekonomikoki laguntzeko konpromisoa hartu du, lurraldeko herritarren mugikortasun-eskubidearen berme gisa.

Oñatirako laguntzak **31.950 €** ko zuzeneko diru-laguntza izanen du urtero, hitzarmen honen indarraldian.

Diru-laguntza honen bidez honakoa finantzatuko da: udalerriko hiri-garraio publikoaren zerbitzuaren eraginkortasuna eta eragina hobetzeko jarduerak, defizitari aurre egiteko jarduerak, kudeaketa operazionala eta Garapen Iraunkorreko Helburuen esparruan (ODS), zehazki 11. Helburuan “Hiri eta komunitate iraunkorrak” garatzeko ekintzak eta programak.

### **2. Ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentrali atxikitzeko lankidetzak-hitzarmena:**

- Hitzarmen honen xedea da autobusetan ontziratutako sistema zentralen (ustiapenari laguntzeko sistema, bidaiariarentzako informazio-sistema eta balidazio- eta salmenta-sistema) berritzea
- Autobusetan ontziratutako ekipoen sistema zentralen funtzionamendua eta mantentze-lanak bermatzea:
  - ◆ Balidazio- eta salmenta-sistema
  - ◆ Ustiapenari laguntzeko sistema
  - ◆ Bideo zaintzako sistema
  - ◆ Bidaiariari informazioa emateko sistemak
- Ontziratutako ekipamendua berritzea eta komunikazioa bermatzeko konpromisoa hartzea, bai ontziratutako elementuen eta Lurraldebuseko sistema zentralen artean, bai operadorearen kontrol-zentroaren eta Lurraldebuseko sistema zentral horien artean

*Jakinaren gainean jarri da Batzordea.”*

**40/2015 Legea**, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena ikusita, eta bereziki, honako artikulua hauek nabarmendu behar dira:

“-47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. *Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.*

Osoko bilkurak, 2022ko martxoaren 31an egindako ohiko bilkuran, onartu zen Gipuzkoako Foru Aldundia eta Oñatiko Udalak tarifa sistema bateratua (MUGI sistema) duen garraio publikoa eta mugikortasunaren arloko lankidetzaren duen garraio publikoa sustatzeko hitzarmena sinatzea, eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dagoen zirriborro dokumentuaren arabera.

Gaia azterturik, eta zerbitzuak batzordearen aldeko irizpena izanik, Osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.-** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Oñatiko Udalak tarifa sistema bateratua (MUGI) duen garraio publikoa sustatzeko eta mugikortasunaren arloan lankidetzan aritzeko eta ustiapenari laguntzeko, bidaiariari informazioa emateko eta lurraldebusen balidazio eta salmentarako sistemen sistema zentrali atxikitzeko hitzarmenak onartzea, eta horretarako adostasuna ematea, espedientean dauden zirriborro dokumentuen arabera.

**Bigarrena.-** Zerbitzu teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hauek behar bezala bete eta garatzeko.

**Hirugarrena:** Hitzarmenak Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publikitate emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakunde bidezko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikuluen babesean.

**Laugarrena:-** Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Bostgarrena:** Alkateari ahalmena ematea hitzarmenak sinatzeko.

---

Gaia aztertuta, eta zerbitzuak informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

6

**5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 11an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuten horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak.

2022ko urriaren 11an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuten ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzaileak (Paskual Elustondo Darpon jaunak), ziurtatzen duenez.

**“7.- Interes bereziko obrak**

*Hainbat herritar eta erakunde eskatu dituzte beren eraikinetako obra-baimenak. Aldi berean eskatu dute, aurtengo Zerga Ordenantzak xedatutakoaren arabera Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren hobaria aplikatu ahal izateko, egin beharreko obrak interes berezikotzat edo udal onurakoak izenda daitezela.*

*Kontu-hartzaileak zera dio:*

*a) Aurtengo Udal Zerga Ordenantzak EIOZen hobarien 3.puntuan zera dioela:*

*“3.-15/1989 Foru Arauren “Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga” V. Kapituluaren 5.a artikulua xedatutakoaren arabera, 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstanzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.”*

*b) Aipatu obraren inguruko txosten eta irizpenak eransten dira.*

*c) Osoko Bilkuran obra interes berezikotzat hartuko balu, Kontu-hartzailearen iritziz, behean zerrendatzen diren obrek betetzen dituzte Oñatiko Udaleko aurtengo Zerga-Ordenantzako EIOZ-ren obren hobarietan jasotako baldintzak.*

Ogasuna Batzordeak, ahobatez, honako aldeko irizpena igortzen dio Osoko Bilkurari:

- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hoberia aplikatuko litzaieke:

**LAN BAIMENA LEIHOAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
			2022-2364	LEIHOAK	25%
			2395	Leihoak	25%
			2539	Leihoak	25%
			2622	Leihoak	25%
			3017	Leihoak	25%
			3024	Leihoak	25%
			3041	Leihoak	25%
			3042	Leihoak	25%
			3053	Leihoak	25%
			3070	Leihoak	25%
			3133	Leihoak	25%
			3264	Leihoak	25%

7

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
			2022-2383	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			2856	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3254	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3292	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3369	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3432	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3406	Instalazio fotoboltaikoa	95%
			3430	Instalazio fotoboltaikoa	95%

**GUNE HISTORIKOKO FATXADAK ERABERRITZEA**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2509	Fatxada eraberritu	75%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2730	Fatxada eraberritu	75%

”

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**LEHENENGOA.**- Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea ondoren zerrendatzen diren eskatzaileen obrak. Ondorioz, zerrendan bertan adierazten den hobaria aplikatuko litzaieke:

**LAN BAIMENA LEIHOAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA %
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-2364	LEIHOAK	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2395	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2539	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2622	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3017	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3024	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3041	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3042	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3053	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3070	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3133	Leihoak	25%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3264	Leihoak	25%

8

**EGUZKI INDARRA AUTOKONTSUMORAKO OBRAK**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2022-2383	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	2856	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3254	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3292	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3369	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3432	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3406	Instalazio fotoboltaikoa	95%
[REDACTED]	[REDACTED]	[REDACTED]	3430	Instalazio fotoboltaikoa	95%



**GUNE HISTORIKOKO FATXADAK ERABERRITZEA**

IZENA	NAN	HELBIDEA	SARRERA	KONTZEPTUA	HOBARIA
			2509	Fatxada eraberritu	75%
			2730	Fatxada eraberritu	75%

**BIGARRENA.-** Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau kontu-hartzaileari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta, eta ogasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko XV. Erakusleiho Lehiaketaren oinarrien onarpena, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 19an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko XV. Erakusleiho Lehiaketaren oinarrien onarpena.

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikariak, 2022ko urriaren 19an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

“Abenduan Erakusleiho Lehiaketaren XV. edizioa antolatzea proposatu da batzordean.

Lehiaketaren oinarriak Txanda merkatarik elkarrekin aztertu dira eta elkarrekin ondorengo berrikuntza eta aldaketak proposatu ditu:

- Parte hartzea sustatzeko helburuarekin, saltoki bakoitzari 50€ko laguntza ematea, erakusleihoa apaintzeko materiala eta argindarraren gastua ordaintzeko.
- Erakusketa epearen hasiera data atzeratzea. Horretaz gain, gauez argiztapena itzaltzeko ordutegia malgutzea eta arautegian jasotzea, saltoki partehartzaileen argindarraren gastua murrizteko neurri bezala.
- Pasa den urteko lehiaketako sariei, haurren saria gehitzea. Oñatiko haurrei bozkatzeko aukera emanez eta bozketan parte hartzen dutenen artean herriko saltokietan gastatzeko bonu bat zozketatuz. Sari berri honen helburua Oñatiko haurren artean herriko merkataritzaren aldeko sensibilizazioa egitea eta saltokiak hobeto ezagutzea da.

Txandak proposatutako neurriak batzordean aztertu ostean, hauek dira aurtengo lehiaketarako proposatzen diren oinarriak:

**OÑATIKO XV. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK.**

*1.- Lehiaketa honetan Oñatiko denda edo zerbitzu guztiak parte hartu ahal izango dute. Partehartzaile bakoitzak 50€ko laguntza jasoko du materiala eta argindarra ordaintzeko.*

*2.- Izena emateko epea azaroaren 30arte egongo da zabalik eta Oñatiko Udalaren erregistroaren bitartez egin beharko da; honekin batera bidaltzen den izen emate orria beteta eta dirulaguntza jasotzeko kontu korronte zenbakia adierazita. Orri honi udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan edo udalaren erregistro elektronikoaren bidez eman beharko zaio sarrera.*

3.- Erakusketaren epea, gutxienez, **abenduaren 12tik 31ra bitartekoa** izango da (biak barne). Erakusleahoaren muntaia abenduaren 12rako egina egon beharko da. Gaueko 22:00etatik aurrera erakusleahoaren argiztapena ez da beharrezkoa izango.

4.- Erakusleihoan, **denda-zerbitzuaren ohiko produktuak** jarri beharko dira.

5.- Sariak Oñatiko Udalak emango ditu eta honela banatuko dira:

- Lehenengo saria .....500€
- Bigarren saria .....300€
- Hirugarren saria.....200€
- Herritarren saria..... 500€
- Haurren saria .....300€

6. Lehenengo hiru sariak epaimahaiak aukeratuko ditu. Epaimahai hau erakusleho-apainketa arloko adituek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

7.- Erakusleihoen balorazioa egiterakoan, epaimahaiak kontutan izango dituen irizpideak hauek izango dira:

- Konposizioa.
- Argiztapena.
- Koloreak.
- Originaltasuna.

8.- Herritarren saria bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko herritarrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

Herritarren sariaren aukeraketa internet bidez egingo da. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian, udalaren web orrian eta parte hartuko duten erakusleihoetan jarriko dira bozkatu ahal izateko QR kodeak. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta bozketan parte hartzeko epea abenduak 20ko eguerdiko 14:00arte egongo da zabalik.

Herritarren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonu bat zozketatuko da.

9.- Haurren sariaren irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko haurrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

Haurren sariaren aukeraketan 5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrek parte hartu ahal izango dute. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian banatuko dira bozkatzeko orriak eta Txaloka ludotekan eta Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo dira botoa emateko hautestontziak. Haur bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta bozketan parte hartzeko epea abenduak 20ko eguerdiko 14:00etan amaituko da.

Haurren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonu bat zozketatuko da.

10.- Sari banaketa ekitaldia abenduaren 23an egingo da, arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Sariak sarituak izango diren saltokietan bertan emango dira.

11.- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek onartu beharko ditu.”

Oinarri hauek Sozioekonomia eta Turismo batzordean aztertu ondoren, honako erabaki proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari:

**LEHENENGOA.**- Oñatiko XV. Erakusleiho Lehiaketaren oinarriak onartzea eta lehiaketa martxan jartzeko erabakia hartzea.

**BIGARRENA.**- 2022ko deialdia onartzea eta dirulaguntza hauek finantzatzeko udal aurrekontuen 1 1000.480.241.06.01 2022 (5508) diru-ataletik eta bere lotespen mailatik sarientzako 2.000€ko gastua eta parte hartzaile bakoitzarentzat 50€ko laguntza baimentzea, behin betiko kopurua izen emate epea amaitzen denean zehaztuko delarik.

**HIRUGARRENA.**- Onartzea aipatutako deialdiri loturiko epeak.

**LAUGARRENA.**- Oinarriak eta deialdia indarrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera, behin diru-laguntzen datu-base nazionalean argitaratuta.

**BOSTGARRENA.**- Deialdi honen iragarkia Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean (DNS) argitaratzea.

**SEIGARRENA.**- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta Sozioekonomia teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta sozioekonomia eta turismo informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena, 2022-2023ko Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko, sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 19an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena, 2022-2023ko Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko.

Unai Kortabarria Errastik, Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Saileko teknikariak, 2022ko urriaren 19an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak honela dio:

*“Batzordean Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren esparruan Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren artean sinatzen den hitzarmenari buruzko zehaztasunak eman dira.*

*Jarraian azaltzen dira aipatutako gaiarekin lotutako aurrekariak:*

*Lehenengoa.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2022ko maiatzaren 12an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen deialdia, 2022/05/20 EHAAN argitaratua emandakoa, bere zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.*

*Bigarrena.- Debagoieneko Mankomunitateak aipatutako deialdiari erantzunez 377.639,00 euroko diru-laguntza eskaera egin zuen. 2022ko irailaren 8an Mankomunitateak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren aldeko ebazpena jaso zuen eskatutako diru-laguntza onartuz.*

*Hirugarrena.- Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen deialdia barruan, eskualdeko udalek, 33 lan-kontratu sinatuko dituzte 2022. urtea bukatu aurretik. Kontratu horiek egiterakoan, udal bakoitzak, hautaketa prozesuak burutzeko, Lanbidek, deialdian jasotako betekizunak errespetatuko beharko ditu eta Lanbidek emandako instrukzioak betetzeko ardura hartu beharko du. Debagoieneko udalen ardura izango da baldintza horiek ez betetzeak ekarri ditzazken ondorioak.*

*Laugarrena.- Diru-laguntza deialdiaren barruan Debagoieneko 33 kontratu egingo dira (Arrasateko Udalak 13, Bergarako Udalak 7, Oñatiko Udalak 5, Aretxabaletako Udalak 2, Eskoriatzako Udalak 3, Antzuolako Udalak 1, Elgetako Udalak 1 eta Leintz-Gatzagako Udalak 1).*

*Bostgarrena.- Oñatiko Udalak 5 kontratu egingo ditu Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen deialdia barruan: Artxiboko laguntzaile bat, 6 hilabeterako eta jardunaldi erdian; 2 TAO kontrolatzaile, 5 hilabeterako eta jardunaldi erdia; eta 2 kale garbiketako peoi, 4 hilabeterako eta jardunaldi osoan.*

*Seigarrena.- Kontratutako diren langabetuen hautaketa eta ordainketak udalek egingo dituzte. Mankomunitateak jasoko duen 377.639,00 euroko diru-laguntza udalei bideratuko die, %53a kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %47a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen dutenean. Beti ere, Mankomunitateak ordainketa horiek, behin diru-laguntzak jaso ondoren, egingo ditu.*

*Azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, 2022ko Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren programa bideratzeko Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmenaren puntu nagusiak hauek dira:*

*Lehenengoa.- Oñatiko Udalak bost (5) langabetu kontratatuko ditu. Langabetu horiek kontratatuzeko, udalak egin beharreko lan eskaintzak Arrasateko Lanbideko bulegoan aurkeztuko ditu. Udalak, Lanbidek eskaintzan parte hartzeko nahia azaldu eta baldintzak betetzen dituzten langabetuen artean, hautaketa prozesua burutuko du. Programaren bukaeran eta Mankomunitateak deskargua egin ahal izateko, dagokion lan eskaintzaren eta zerbitzuetako eskaintzen erregistro zenbakiez gain, Oñatiko udalak langileen kontratuak, nominak eta TC1 eta TC2ko kopiak edo kosteak jasoko duen idazkaritzak egindako ziurtagiria emango dio Debagoieneko Mankomunitateari.*

**Bigarrena.-** Oñatiko Udalak egingo dituen kontratuak, Lanbidek deialdiko 4.1.2 atalean ezarritako betebeharrak errespetatuko ditu.

**Hirugarrena.-** Debagoieneko Mankomunitateak Lanbidetik jasotako diru-laguntzatik 53.172,11,-euro ordainduko dio Oñatiko Udalari, %53a kontratua egiterakoan eta gainontzeko %47a egindako kontratazioaren gastua egiaztatzen duenean, beti ere, Mankomunitateak diru-laguntzak jaso eta gero.”

Ikusita 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, bereziki honako artikulua hauek:

“47. artikulua. Definizioa eta hitzarmen motak.

1. Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

Ez dira hitzarmentzat hartzen jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio.”

48. artikulua.

3. Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezzen lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete.

8. Alderdiak adostasuna emanaz burutzen dira hitzarmenak.

50. artikulua. Hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideak eta haien ondorioak.

1. Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.

2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.”

Horrela beraz, gaia Sozioekonomia eta Turismo batzordean azaldu ondoren, erabaki proposamena hau egiten zaio Osoko Bilkurari:

**Lehenengoa.-** 2022ko Enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako ebazpenari lotutako proiektuak bideratzeko hitzarmena sinatzea Debagoieneko Mankomunitatearen eta Oñatiko Udalaren artean.

**Bigarrena.-** Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du, eta ere hori igarota, ondoriorik gabe geratuko da.

**Hirugarrena.-** Hitzarmen honek dakartzan ondorio ekonomikoak onartzea (guztira 56.965,54€ko soldata gastuak, horietatik 53.172,11 Lanbideren dirulaguntza bidez jasoko direnak eta 3.793,43€ Oñatiko Udalaren aurrekontuarekin osatu beharko direnak) Pertsonal Saileko “1.0910.131.241.00.01 2022 (432) ENPLEGU SAILEKO ALDI BATERAKO LANSARIAK” eta “1.0910.160.241.00.01 2022 (448) ENPLEGU SAILEKO LANG.GIZARTE ASEGURANTZA” diru-atalen eta horien lotespen-mailaren kargura. Dirulaguntza zenbatekoaren %53a kontratuak egiterakoan jasoko da eta gainontzeko %47a egindako kontratazioen zuriak aurkezten denean.

**Laugarrena.-** Oñatiko Sozioekonomia Saileko teknikaria izendatzea Oñatiko Udaleko arduradun, hitzarmen hau behar bezala bete eta garatzeko eta Jarraipen Batzordea ordezkari izateko.

**Bostgarrena.-** Hitzarmen hau Hitzarmenen Erregistroan inskribatzea, behar bezalako publizitatea emateko Gardentasunaren Atarian, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55. artikuluan

oinarrituta eta, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 b artikulua babesean.

**Seigarrena.**- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

**Zazpigarrena.**- Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

---

Gaia aztertuta eta sozioekonomia eta turismo informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Emakumion Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, berdintasun informazio batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 11an.**

Idazkariak Alkatearen proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Oñatiko emakumion kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea.

Jone Arriolabengoa Martiarena andreak (berdintasun teknikaria) 2022ko urriaren 11an egindako berdintasun batzordearen sinatutako aktak dio:

*“Oñatiko emakumion kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko ordenantzaren onarpena -erantsita dokumentua-*

*Uztaileko batzordean adostutako testuak, idazkariaren oniritzia jaso du, zenbait zuzenketa erantsita, eta kontseilukideen aldeko irizpena jaso du. Aldez aurreko kontsulta publikoa burutu da eta ez da ekarpenik jaso; partaidetza teknikariak honen gaineko txostena eman du irailaren 26an.*

*Hori guztia kontuan hartuta, Berdintasun batzordeak ahobatez onartu du Oñatiko emakumion kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko ordenantzarako testua, eta Urriaren 27an burutuko den batzarrean Osoko Bilkurak onar dezan bideratuko da.*

*Ordenantzan ez da ezartzen zeintzuk izango diren alderdi bakoitzetik izendatuko diren ordezkariak. Hala, legeintzaldi bakoitzaren hasieran izendatu beharko lirateke alkate dekretu bidez.”*

Udal honentzat interesgarritzat jotzen da Oñatiko emakumion kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko arautzeko udal ordenantza onartzea.

Udaleko idazkariaren 38/2022 txostena, urriaren 24koa, dago espedientean.

Udalaren Osoko Bilkura da organo eskuduna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d) eta 49. artikuluen arabera.

Azaldutakoagatik, berdintasun batzorde Informatiboaren oniritziarekin, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

**Lehenengoa.**- Oñatiko emakumion kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua arautzeko udal ordenantzari hasierako onarpena ematea, espedientean emandako idazketarekin.

**Bigarrena.**- Ordenantza hori jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeke iragarki-oholean hogeita hamar egun balioduneko epean, Udalbatzak ebatziko dituen erreklamazioak edo iradokizunak aurkez ditzaten. Era berean, Udalaren webgunean argitaratuko da epe berdinean. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da akordioa, Udalbatzak berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

**Hirugarrena.**- Behin betiko onartu ondoren, arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean jarriko da indarrean.

**Laugarrena.**- Erabaki hau teknikari sustatzaileari jakinaraztea.

**Bostgarrena.**- Alkate-udalburuari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten era guztietako dokumentuak izenpetu eta sinatzeko.

---

Gaia aztertuta eta berdintasun informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

**9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Modernizazio Osagarria langile guztien nominatik ezabatzea onartzea, eta efektua izatea azaroko nominatik aurrera, pertsonal eta barne antolakuntza informazio-batzordean diktaminatua 2022ko urriaren 18an.**

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

**Gaia:** Modernizazio Osagarria langile guztien nominatik ezabatzea onartzea, eta efektua izatea azaroko nominatik aurrera.

2022ko urriaren 18an egindako pertsonal eta barne antolakuntza batzordean eta 2022ko urriaren 22an egindako balorazio batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamenak, pertsonal eta barne antolakuntza Batzordeko idazkariak (Izaskun Querejeta Agirre andreak), ziurtatzen duenez.

**“Modernizazio osagarria ezabatzea**

*Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak jakinarazi duenez, Oñatiko Udaleko langileok nominan jasotzen dugun Modernizazio Osagarria ez da legezkoa. Gainera, jasotzen den diru kantitate hori ez da jasotzen Langileen Zerrendan eta, beraz, berariazko osagarrian sartzeko aukera egongo litzatekeela adierazi zuten.*

*22/2021 Legeak, abenduaren 28koak, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak arautzen duen moduan, nominan hurrengo kontzeptuak bakarrik jaso daitezke:*

*“23. artikulua. Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen aplikazio-eremuan dauden Estatuko funtzionarioen ordainsariak, EPOEren azken xedapenetako laugarrenean ezarritakoaren arabera.*

*2022. urtean, funtzionarioen ordainsariak honako hauek izango dira:*

- A. *Funtzionarioaren kidegoa edo eskala sailkatuta dagoen taldeari edo azpitaldeari dagozkion soldata eta hirurtekoak, lege honen 19.bost.1 artikuluan adierazitako zenbatekoetan.*

Grupo/Subgrupo	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	14.864,16	572,04
A2	12.852,72	466,56
B	11.235,00	409,32
C1	9.650,28	353,16
C2	8.031,60	240,36
E	7.351,08	180,96

- B. *Aparteko ordainsariak: urtean bi izango dira, bata ekainean eta bestea abenduan. Ordainsari horiek 1988rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 33/1987 Legearen 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera sortuko dira. Ordainsari horietako bakoitzak lege honen 19. bost.2 artikuluan finkatutako soldataren eta hirurtekoen zenbatekoak jasoko ditu, bai eta hilero jasotzen den destino-osagarriarena ere.*

*Funtzionarioek ekainaren edo abenduaren aurreko sei hilabeteetan lanaldi murriztua egin badute, aparteko ordainsariaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.*

Grupo/Subgrupo	Sueldo (euros)	Trienios (euros)
A1	764,37	29,43
A2	781,15	28,35
B	809,20	29,50
C1	695,06	25,41
C2	663,20	19,83
E	612,59	15,08

C. Betetzen den lanpostuaren mailari dagokion *destino-osagarria*, hamabi hilabete-saritan:

Nivel	Cuantía anual (euros)
30	18.652,32
29	16.579,68
28	14.818,08
27	13.160,16
26	11.606,04
25	10.051,80
24	9.429,96
23	8.756,64
22	8.134,68
21	7.513,32
20	6.995,40
19	6.580,68
18	6.166,20
17	5.802,96
16	5.440,56
15	5.077,92
14	4.715,52
13	4.352,52
12	3.990,12
11	3.627,36
10	3.339,36
9	3.099,72
8	2.907,84

15

D. Betetzen den lanpostuari esleitutako *berariazko-osagarria*, hala badagokio. Osagarri horren urteko zenbatekoa 19. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako ehunekoan handituko da, 2021eko abenduaren 31n indarrean dagoenaren aldean, lege honen 19. eta zazpigarren artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Urteko berariazko osagarria hamalau ordainsari berdinetan jasoko da, eta horietatik hamabi hilero jasoko dira, eta beste bi, hileko baten zenbateko berekoak, ekainean eta abenduan, hurrenez hurren.

Funtzionario publikoek destino-osagarri eta berariazko-osagarri gisa jasotzen dituzten ordainsariak, nolahi ere, indarrean dagoen araudian aurreikusitako hornidura-prozeduren arabera betetzen duten lanpostuari dagozkionak izango dira, eta egiten diren zeregin zehatzek ezin izango dute aurrekoa ez betetzea babestu, araudi horrek beste zenbateko batzuk aitortzen dizkien kasuetan izan ezik, eta, nolahi ere, abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 21.2 artikuluan araututako lanpostuaren mailaren

bermea eta 1991rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 31/1990 Legearen 33.bi artikulua aplikatuz dagozkion zenbatekoak jasotzeko eskubidea.

- E. **Produktibitate-osagarriak** errendimendu berezia, aparteko jarduera eta dedikazioa eta lanpostuak betetzeko interesa edo ekimena ordainduko ditu.
1. Produktibitatearen balorazioa lanpostu motarekin eta hura betetzearekin lotutako inguruabar objektiboen arabera egin beharko da, eta, hala badagokio, dagozkion programari esleitutako emaitzak edo helburuak lortzeko parte-hartze mailaren arabera.
  2. Produktibitate-osagarriagatik denboraldi batean esleitutako zenbatekoek ez dute, inola ere, eskubide indibidualik sortuko ondoz ondoko aldiei dagozkien balioespenei edo balioespenei dagokienez.
- F. Ministerio-sailek edo erakunde publikoek emango dituzten aparteko **zerbitzuengatiko haborokinak**, xede horretarako esleitutako kredituen barruan. Haborokin horiek 19. artikuluko bigarren zerbakiaren aurreikusitako gehieneko gehikuntza izango dute, urtean, 2021eko abenduaren 31n esleitutakoekin alderatuta. Haborokin horiek salbuespenezkoak izango dira, eta ohiko lanalditik kanpo emandako aparteko zerbitzuengatik baino ezin izango dira aitortu. Haborokin horien zenbatekoak ezin izango dira finkoak izan, ez aldian aldikoak, ez eta ondoz ondoko aldietan banakako eskubideak sortu ere.
- G. EPOEko E taldeko/lanbide-taldeen langileen ordainsariak, modu pertsonalean, mantendu egingo dira, 2010erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 24.bat.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, 19.bi artikuluan aurreikusitako ehunekoan gehituta, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko”.

Estatuko Aurrekontu Orokorrek ez dute bere baitan hartzen Modernizazio Osagarria. Beraz, osagarri hori ezabatzea ezinbestekoa da, ez baita legezko osagarri bat.

Soldata, hirurtekoak, antzinatasuna, destino osagarria eta berariazko osagarria bakarrik ordaindu daitezke eta, zerbait kasutan, produktibitate osagarria eta aparteko zerbitzuengatiko haborokinak.

